

EKIALDE HURBILEKO GATAZKA. Estatu Batuek «izugarri baikortzat» jo dute Arafatek Rishon Letziongo atentatua gaitzetsi izana, baina nabarmendu dute PAN erreformatu behar dela. NBEk Zisjordaniako operazio militarren inguruko azterketa egingo du.

Europara eta Kanadara bidaliko dituzte Natibitate basilikako 13 ekintzaile

Erredakzioa | DONOSTIA

Belengo Natibitate basilikaren setioa bertan behera gelditzear dago, Europako bost herrialdek eta Kanadak, atzo, kanporatze-koak diren 13 ekintzaile palestinar hartzea onartu ondoren. Hitzartu denaren arabera, ekintzaileak Ziprera joango dira lehenik, eta astelehenerako haiek hartzea onartu duten herrialdeetan iritsiko dira: Austria, Grezia, Italia, Espainia, Luxenburgua eta Kanadara. Beste 26 palestinar Gazara eramango dituzte epai ditzaten, eta gainerako kideak aske izango dira.

Akordioaren azken oztopoa gainditu baino ordu batzuk lehenago, negoziazioak atakan izan ziren berriro. Basilikako iturrien arabera, 13 ekintzaileek Europako Batasuneko bitartekaria bertan izatea nahi zuten, babestuta egoteko kanporatuak izan bitartean. Israelgo Armadak esan zuen, ordea, basilikaren ondoko hotel batera eramateko exijitzen zutela.

Hilabete pasatxo da Armada Belenen sartu eta palestinarrek Natibitate elizan aterpea hartu zutenetik. Orduz geroztik negoziazio gogorrak egin dituzte Palestina eta Israelgo agintariek irtenbidea bilatzeko.

Gaza jomuga

Israelgo Gobernuak segurtasun kabineteak baimena eman zien atzo Ariel Sharon lehen ministroari eta Binyamin Ben Eliezer Defentsa ministroari, asteartean Rishon Letzionen izandako eraso suizidari militarki erantzuteko. Atentatua egin zuen Hamaseko kidea Gazakoa zen, antza, eta han kontraerasoa jartzeko erreserbistak deitzen hasi da Armada. Tel Avivek Gaza kontrolpean hartzeko asmorik ez duela adierazi zuen atzo Shimon Peres Atzerri ministroak, baina ez zuen baztertu «aldian aldiko erasoak» izatea.

Tsahal herenegun hasi zen tropak biltzen Gazako mugan, eta atzo Rafa ondora sartu zen. Istiluk izan ziren, eta, lekukoaren arabera, gutxienez bi etxek su hartu zuten tankeen tiroz.

Gazari erasoz erresistentzia geldiarazterik ez zuela lortuko

Israelgo Gobernuak astearteko eraso suizidari bide militarrez erantzutea erabaki ondoren, Armadak Gazan «aldian aldiko erasoak» egiteko prestaketak jarri ditu abian



JAMAL ARURI / EPA

Europako Legebiltzarreko ordezkari talde batek Palestinako bandera bat eman zion atzo Jasser Arafat PANeko presidenteari, Ramalan.

ohartarazi zion atzo Egiptok Israel. Riadek ukatu egin zuen palestinarrei ematen dien dirua «terrorismoa laguntzeko» erabiltzen dela —Sharonek hori leporatu zion Washingtonen zela—. «Israelek geldiarazi behar du lehenik bere terrorismoa», gaineratu zuen Saudi Arabiak.

PANeko Informazio ministro Jasser Abed Rabbok salatu zuen Sharonek «palestinaren aurkako gerran aurrera jarraitu» nahi duela. Horren ordez negoziatioetara berehala itzultzeko exijitu zion.

«Seinale izugarri baikortzat» hartu zuen asteazkenean George Bush Estatu Batuetako presidentek, Jordaniako errege Abdalarekin bildu eta gero, Jasser Arafat PAN Palestinako Aginte Nazionaleko buruak «terroris-

INKESTA

Israeldarren %59 erretiratu eta Jerusalem zatitzearen alde

Israelgo herritarren erdiek baino gehiagok onartuko lukete Armada 1967an okupatutako lurralde palestinarretatik ateratzea, kokagune judu gehienak bertan behera uztea, Jerusalem zatitzea eta iheslari palestinarren itzulera baztertzeari aurreikusiko lukeen bake akordio bat. Hala erakutsi du Israelgo Bakearen aldeko Koalizioak Dahaf institutuari eskatutako inkesta batek —504 herritar adinduni egindakoa da—. Akordio hori babesteko baldintzat hartzen dute Estatu Batuek berau bete egingo dela bermatzea. Galdekatutakoen %63k uste dute, gainera, indarkeria ezin dela konpondu bake negoziatorik gabe.

Bakearen aldeko Koalizioak ezkerreko alderdi multzo bat biltzen du, zeinak datorren larunbatean Tel Aviven manifestazio erraldoira deitu duen *Lurralde okupatuak ebakuatu Israelen onerako* lelopean.

moa» gaitzetsi izana, eta Rishon Letziongo atentatuari erantzun arren, «bake ikuspegiari eusteko» eskatu zion Sharoni. Dena den, Arafati ohartarazi zion PANek «erreforma demokratikoak» behar dituela nazioarteko laguntza jaso nahi badu.

Arafatek herenegun erasoak saihesteko emandako aginduei jarraiki, PANek Hamaseko 14 kide atxilotu zituen atzo.

NBE Nazio Batuen Erakundeak Zisjordaniako ofentsiba militarren inguruko —Janin barne— txosten bat egitea erabaki du, eta Kofi Annan idazkari nagusiak galdegin zien atzo Israel eta Palestinari behar duen informazioa bere esku jartzeko. NBEko aditu politiko zein militarrek hartuko dute parte egitasmo horretan.